# Eskuliburua



# Aurkibidea

1. Aplikazioa deskargatu ........ 2
2. Aplikazioan izena eman ........ 2
3. App-ra sarbidea ........ 4
4. App-aren menua ........ 4
   4.1 Nire datuak ........ 4
   4.2 Hurrengo hitzorduak ........ 4
   4.3 Kobraketak ........ 5
   4.4 Formularioak ........ 6
   4.5 Laguntzak ........ **¡Error! Marcador no definido.**
   4.6 Sendagaiak ........ **¡Error! Marcador no definido.**
   4.7 Txosten medikoak ........ 7
   4.8 Erradiografiak ........ 8
   4.9 Bideoak ........ 8
   4.10 Jakinarazpenak ........ **¡Error! Marcador no definido.**
   4.11 Ohiko galderak ........ **¡Error! Marcador no definido.**
   4.12 Doikuntzak ........ 9
5. Larrialdiak ........ **¡Error! Marcador no definido.**
   5.1 Zentroak bilatu ........ 9
   5.2 Larrialdietako deia ........ 10
   5.3 Harremanetarako deia ........ **¡Error! Marcador no definido.**
   5.4 Istripua izanez gero ........ **¡Error! Marcador no definido.**

# 1. Aplikazioa deskargatu

Aplikazioa 3 ingurune desberdinetatik deskarga daiteke:

- iOS:
  https://apps.apple.com/es/app/mutualia/id888244241

- Android:
  https://play.google.com/store/apps/details?id=es.mutualia.android.mutualia

- Webgunea:
  https://extranet.mutualia.es/appTrabajadores-web/

# 2. Aplikazioan izena eman




Aplikazioa deskargatu ondoren, sakatu **"Aplikazioan erregistratu"** botoia.

NAN zenbakia eta telefono mugikorra sartzeko eskatuko dizu. Bi datu horiek gure datu-basean erregistratuta baditugu, pasahitz bat jasoko duzu SMS bidez. Bestela, webguneko "autonomoa" atalean sartu behar duzu, eta zure datuak eguneratu.

SMS bidez jasotako pasahitza sartu ondoren, pantaila honetara iritsiko zara, gure datu-basean dauden datuekin. Egiaztatu posta elektronikoa zuzena dela (hala ez bada, aldatzeko aukera daukazu).




Sakatu "Hurrengoa". App-an sartzeko **Erabiltzailea** ikusiko duzu (**NAN),** eta pasahitz berria idazteko eskatuko dizu.

Onartu Pribatutasun politikak eta Erabiltzeko baldintzak, eta sakatu "hurrengoa". Mezu bat agertuko da, esanez alta modu egokian erregistratu dela. Dagoeneko has zaitezke App-a erabiltzen.



## 3. App-ra sarbidea

Zure erabiltzailea **NANa** izango da, eta aurrez aukeratu duzun pasahitza baliatuta App-ra sar zaitezke.

Erabiltzen ari zaren gailuak sarbide biometrikoa badu (bai hatz-marka bidez, bai aurpegi bidez), ea gorde nahi duzun galdetuko dizu, hurrengoetan era horretan sartzeko.




## 4. App-aren menua




### 4.1 Nire datuak

Atal honetan, Mutualian dugun zure datu pertsonalen informazioa ikusi ahal izango duzu. Datu horietakoren bat zuzena ez bada, gurekin harremanetan jar zaitezke 900 50 60 70 telefono-zenbakian.

### 4.2 Hurrengo hitzorduak

Aplikazioan sartu eta berehala, hurrengo hitzorduak ikusteko aukera izango duzu.

Gainera, ezkerreko menuan hitzorduen erregistroa kontsulta dezakezu.

Dituzun hurrengo hitzordu guztiak agertuko dira, gertakari guztiei dagozkienak, eta data, ordua eta hitzorduaren lekua adieraziko dira.




Hitzordu bakoitzean, hau egin ahal izango duzu:

- Xehetasunak ikusi, hitzordua zein osasun profesionalekin daukazun jakiteko.
- Hitzordua gailuaren egutegian gorde.
- Laguntza emango den zentrora deitu.
- Google Mapsen sartu, zauden lekutik osasun zentroraino egin behar duzun ibilbidea ikusteko –aukera hori erabili ahal izateko, erabiltzaileak “kokagunea” baliatzeko baimena eman behar dio App honi (ikusi 4.12 puntua, Doikuntzak)–.

## 4.3 *Kobraketak*

Azken 3 urteetan ordainketaren bat jaso duzun prestazioen laburpen bat agertuko zaizu. Horietako bakoitzeko, ordainketaren goiburua agertuko zaizu, hasierako eta bukaerako dataren laburpena eginez, eta xehe adieraziko da zein den ordaindutako zenbatekoa, eta ordainketa zein hilabeteri dagokion.






## 4.4 Formularioak

Prestazio-arloko zenbait formulario bete ahal izango dituzu: zuzenean ordaintzeko eskaerak, HEA, etab.




Formularioa osatutakoan pdf bat sortuko da, zeina Prestazio Sailera bidali ahal izango duzun, ikono hau erabilita: 

## 4.5 Laguntzak

Azken 3 urteetan emandako laguntzak kontsulta ditzakezu.

Mutualian dituzun gertakari guztien laburpen bat izango duzu, bai zabalik bai itxita daudenena, eta horietako bakoitzean laguntzen xehetasunak ikusi ahal izango dituzu.

**Gertakarien laburpena:**



**Gertakari baten laguntzen xehetasunak:**




Laguntza bakoitzean aukera hauek izango dituzu:

- Xehetasunean sartu, laguntza zein osasun profesionalek egin duen jakiteko.
- Frogagiri bat eskatu –sortzen denean, ohar bat iritsiko da gailura, adierazteko badugula Jakinarazpenen moduluan (ikusi 4.10 puntua)–.
- Laguntza eman den zentrora deitu.
- Google Mapsen sartu, unean uneko kokagunetik osasun zentrorainoko ibilbidea ikusteko.

## 4.6 Sendagaiak

Medikuak azken hilabetean agindutako sendagaiak ikus daitezke, bakoitzari dagokion posologia barne.


OFICINA VIRTUAL

Medicamentos

| Nombre Medicamento | Fecha Inicio Tratamiento | Número Dosis |
|---|---|---|
| BETADINE 125ML SOLUCION | 02 Abr 2020 | Seguir pauta facilitada por el Facultativo |
| COLIRIO COLIRCUSI ANESTESICO DOBLE 10ML | 02 Abr 2020 | Seguir pauta facilitada por el Facultativo |

## 4.7 Txosten medikoak

Atal honek segurtasunezko sarbidea du. Sartzeko unean, kode bat bidaliko dizu mugikorrera, hurrengo pantailan idazteko eta txosten medikoak ikusteko aukera izateko (larrialdiak eta harrera-arauak).

## 4.8 Erradiografiak

Azken 3 urteetan egindako RXak eta ECOak kontsultatu ahal izango dituzu. Egindako proben zerrenda izango duzu, eta horietako bakoitzean irudi diagnostikoa agertuko da.







## 4.9 Bideoak

Fisio batek dagoeneko existitzen diren bideoetako batekin tratamendua egitea agintzen duen bakoitzean, jakinarazpen bat iritsiko zaizu mugikorrera.

Aurretiazko pantaila bat agertuko da, eta, horretan, adierazi egingo dira izendatutako bideoan edo bideoetan aipatzen diren gorputz-atalak. Behin barrura sartuz gero, bideoak ikusteko aukera izango duzu.







## 4.10 Jakinarazpenak

Iritsi diren jakinarazpen guztiak ikusiko dira, eta, dokumenturen bat erantsita dutenen kasuan, horiek ere eskuratu ahal izango dituzu (frogagiria, 10T…). Behar ez badituzu edo berriro ikusi nahi ez badituzu, ezabatzeko aukera duzu.

## 4.11 Ohiko galderak

Mutualiaren webguneko ohiko galderen modulura iritsiko zara.

## 4.12 Doikuntzak

Kudeatu zure kontuaren konfigurazioa:

- Hatz-markarekin sartzea
- Hizkuntza
- Baimenak
- Jakinarazpenak
- Kokagunea
- …




# 5. Larrialdiak

Atal honen barruan aurki dezakezun informazioa aplikazioa abiarazi aurretik aurki dezakezun bera da, erabiltzaile-izena eta pasahitza sartu beharrik gabe.




## 5.1 Zentroak bilatu

Mutualiako zentroak agertuko dira, baita unean uneko kokagunetik gertuen dauden itunpeko zentroak ere. Norberak nahi duen herriaren arabera egin ahal izango da bilaketa, eta herri horretatik gertuen dauden zentroak azalduko dira.

Zentro bakoitzari dagokion atalean, hari buruzko informazioa agertuko da, eta aukera egongo da telefonoz deitzeko, posta-mezu bat bidaltzeko, eta, Google Mapsen bitartez, bertarainoko bidea ikusteko.

## 5.2 Larrialdietako deia

112ari deitzen dio, botoi hori sakatuz.

## 5.3 Harremanetarako deia

Mutualiaren harremanetarako telefonoari deitzen dio: 900 50 60 70

## 5.4 Istripua izanez gero

Mutualiaren webguneko “Zer egin istripua izanez gero” modulura iritsiko zara.